

BIZIKLETA

Karolinari bizikleta bat erosi diote. Asteaz
zehar, bere amarekin bizikleta
gainbegiratzeko aritu da. Arratsalde batean
Tarazonicaren Natur Bidean bizikletan
ibiltzera atera dira.



1. Bizikleta ordaintzeko, ondorengo txanpon eta billeteak erabili dituzte.
Zenbat euro ordaindu dute bizikleta?



..... €

2. Bizikletaren gurpilak forma hau du:

- A. Zirkulua
- B. Karratua
- C. Zilindroa
- D. Esfera



3. Karolinaren amak gurpil bat erosi du bere bizikletarentzat. Karolinak jakin nahi du bere bizikletak amaren bizikletak baino erradio gehiago dituen. Zenbat erradio ditu irudiko gurpilak?



.....

4. Kalkula ezazu, gutxi gorabehera, zer pisu izanen duen Karolinari erosi dioten bizikletak.

- A. 2 kg
- B. 10 kg
- C. 30 kg
- D. 60 kg



5. Begira ezazu natur bidean ageri den seinalea. Zenbat zirkunferentzia ikusten dituzu?

- A. Lau
- B. Bost
- C. Sei
- D. Zazpi



6. Karolina eta bere ama paseatzera atera dira 16:40an. Kronometroan ageri da bizikletaren gainean pasatu duten denbora. Gutxi gorabehera, zein ordutan iritsi dira etxera?


- A. 1 : 46an
- B. 17 : 26an
- C. 17 : 46an
- D. 18 : 26an



7. Karolina eta bere familia Tuteratik Tarazona aldera abiatu dira. Ordu batean 8 kilometro egin dituzte. Abiadura bera mantentzen badute, zenbat kilometro egingen dituzte bi ordu eta erdiz?

.....

8. Atsedean hartzeko, Lor aintzirara joan dira eta Karolinak bertan ikusi dituen bi ahate marraztu ditu. Bi ahateak posizio simetrikoan al daude? Zergatik?




.....

.....

.....

9. Argazki honetan hiru hegazti migratzaile ikusten dira. Zer motatako triangelua ari dira osatzen?

- A. Triangelu angeluzuzena
- B. Triangelu aldekidea
- C. Triangelu isoszelea
- D. Triangelu eskalenoa



10. Karolina, bere anaia Karlos eta gurasoak Tuterako jatetxe batera joan dira bazkaltzera. Begira ezazu irudia eta erantzun: zenbat euro ordaindu dute 4 menuen truke? Idatzi ematen dituzun urratsak eta soluzioa.

EGUERDIKO MENUAK (12:00-17:00)			
Ama eta Aita	1. MENUA	Plater konbinatua + Edaria + Postrea	11,50€
	2. MENUA	Ogitartekoa + Patata frijituak + Edaria + Postrea	8,20€
	3. MENUA	Sandwicha + Patata frijituak + Edaria + Postrea	8,30€
Karolina eta Karlos	4. MENUA	Hanburgesa + Patata frijituak + Edaria + Postrea	8,50€

11. Karolinak aitari zenbat kilometro egin dituzten galdetu dio. Aitak kilometro-kontagailua begiratu eta erantzun dio:

- Bi zifren arteko batura 9 da.
- Hamarrekoen zifra batekoen zifraren erdia da.

Idatz ezazu zenbat kilometro egin dituzten.

Hamarrekoen zifra	Batekoen zifra	
		
		km